

Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2025/21

TURISMOAREN SEKTOREKO ELKARTEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA,
TURISMOA SUSTATZEKO ETA DINAMIZATZEKO JARDUERAK EGIN DITZATEN
2024KO URRIAREN 1ETIK 2025EKO IRAILAREN 30ERA

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, bete dadin Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa. Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen ordenantza hori 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez, eta erabaki hori behin betikoa bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako. **Deialdi honetan arautu gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak aplikatuko dira.** ([2006ko 21. NAO](#)n argitaratua, [otsailaren 17koan](#)).

Iruñeko Udalaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da dinamizazio-kanpainak babestea edo Iruña ezagutzera ematea helburu duten jarduerak eta ekitaldiak sustatzea eta babestea. Plan horrek dirulaguntzen ildo espezifiko bat jasotzen du 8. ildo estrategikoan (Turismoa): turismoaren sektoreko elkarteei zuzendutako laguntza-deialdi bat Iruña sustatu eta dinamizatu dezaten, turismoari dagokionez. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emaila:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZA EMATEAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:
Deialdi honen xedea da turismoaren sektoreko elkarteei dirulaguntzak ematea baldin eta turismoa dinamizatzeko eta hiria bera sustatzeko proposamenak edo ekitaldiak antolatzen badituzte 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitartean (biak barne) 2024. urtean hasitako jardueren kasuan, ezin izanen dute laguntza hau jaso aurreko deialdian laguntza lortu zuten jarduera horiek. Aurreko deialdi hori Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez onetsi zen, 2024ko uztailaren 17an, eta Udalak 2024ko 171. NAO n argitaratu zuen, 2024ko abuztuaren 22koan. Hala berean, ezin izanen dute dirulaguntza hau jaso jarduera gauzatzeko dirulaguntza eskatu bai, hura emateko ebazpena eman eta, ondoren, hura gauzatzeari uko egin diotenek (2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitarteko aldia).

2. Deialdiaren helburua:
Helburua da turismoa dinamizatu eta sustatzeko ekintzak garatzen dituzten turismo-elkarteei laguntza ematea Iruñeko Turismo Plan Estrategikoko marketin-planean jasotako turismo-produktuak gara ditzaten 2024-2029 aldian.



Inongo kasutan ez dira diruz lagunduko hiriaren helburu estrategikoak eta Iruña 2030 estrategia hausten duten jarduketak, ezta 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoarekin eta Marketing-planarekin bat egiten ez duten jarduketak eta Iruñeari onurarik ekartzen ez dizkioten jarduerak ere. Edozein kasutan, dirulaguntzaren xede diren jarduerak berekin ekarri beharko lukete helmuga turistiko adimenduna lortzea, Industria, Merkataritza eta Turismoko Ministerioaren helmugako jasagarritasun turistikoko estrategiarekin bat, IRUÑA SF365 plana garatzeko esparruan.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Dirulaguntzaren xede izanen dira Iruñeko udal-mugartean egiten diren eta honako jarduketa-ildo hauetan sartzen diren ekintzak; salbuespenez, dirulaguntzaren xede den inguruabarra Iruñeko udal-mugarteaz kanpokoa izanez gero, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka.

DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK:

3.1.- Hirian ekitaldiak dinamizatzeko ekintzak.

3.2.- Sustapen- eta publizitate-jarduketak, Iruña turismo-helmuga gisa nabarmentzen dutenak.

3.1. DINAMIZAZIO-EKINTZAK

Dinamizazio-ekintza gisa definitzen dira –zati batean edo osorik Iruñean eginda– edozein motatako ekitaldiak sustatzen dituzten ekitaldi eta jarduerak, izan kulturalak, kirolekoak, naturakoak, gastronomikoak zein biltzarretakoak, baldin eta esperientzia, ideia eta ezagutzen trukea errazten badute Iruñeko hirian (dastatzeak, lantegiak, hitzaldiak eta abar) eta xede badute Iruñeko-Nafarroako baliabideak, produktuak edo tradizioak ezagutaraztea edo horien garrantzia azpimarratzea, urteko beste une batzuetan hirian edo dinamizazio-ekintza egiten den ingurunean gozatu, bisitatu, kontsumitu edo eros daitezkeenak, eta xede dutenak turistak erakartzea edo Iruñeko hirian haien egonaldia hobetzea.

3.1 apartatuko "ekitaldiak dinamizatzeko jarduerak" modalitateko dirulaguntzen onuradunak komunikazio-gastuak bakarrik aurkezten baditu, jarduera 3.2 apartatuko jarduketatzat hartzeko aukera egonen da, "sustapen- eta publizitate-jarduketak" izenekoari dagokiona, eta aldaketa posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaio onuradunari. 5 egun balioduneko epean aldaketa hori ez dela onartzen jakinarazi ezean, behin betikotzat joko da, eta jardueraren balorazio-prozesuak aurrera egingen du.

Baldintza hauek betetzen dituzten dinamizazio-ekintzek jaso dezakete dirulaguntza:

- Hala gai nagusiak nola antolatzen diren jarduerak harreman estua izan behar dute horiek sustatzen dituen entitatearekin.
- Dinamizazio-ekintzak eremu irekietan egingen dira, ahal dela.
- Sustatzen diren ekintzek lotura izan behar dute Iruñeko Plan Estrategikoko marketing-planean sartutako honako produktu turistiko hauetakoren batekin: nekazaritzari lotutako turismo gastronomikoa, kulturala, sanferminak, Donejakue bidea, osasuna, bilera-turismoa, hau da, "Meetings Incentives Congress Events" (aurrerantzean "MICE"), kirolekoa, hezkuntza eta hizkuntzetakoa, ingurune naturala eta ekoturismoa, seniorra, familiarra eta Iruña hub turistiko gisa (Iruñetik Nafarroa produktua nabarmentzea).
- Ekintzak turistei zuzenduta egonen dira.
- Erabilitako sustapen-tresnek kontuan hartu beharko dute xede duten publikoaren jatorria. Hizkuntza aipatu merkatuari egokitu beharko zaio.
- Online marketing-ekintzetan aintzat hartu beharko dira merkatuen segmentazioa eta publizitatearen xede diren bisitarien profila.

3.2. SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUERAK, IRUÑA HELMUGA TURISTIKO GISA NABARMENTZEN DUTENAK.

Diruz lagunduko dira Iruña helmuga turistiko gisa sustatzea helburu duten honako jarduketa-tipologia hauek:

a) Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea



- b) Argitalpenak, liburuxkak eta turismo-gidak
- c) Publizitate kanpainak, hala konbentzionalak nola ez-konbentzionalak:
 - Iruñeko produktu turistikoari lotutako komunikazio kanpainak.
 - Gizarte-sentsibilizazio kanpainak, jasagarritasunak sektorean duen garrantziaren inguruan.
 - Sektorearendako komunikazio-kanpainak, Iruñeko Udalak IRUÑA SF365 planaren barruan garatutako ekintzen sustapenari lotuak
- d) Webguneak.

Argitalpen eta kanpaina guztiek gutxienez jakitera eman beharko dituzte Iruñeko Udalaren turismoko webgunea, marka turistikoa, PIC txartela eta Iruñeko turismoko app-a. Horietako batzuk argitaratzea dispentsatu daiteke, kanpaina eta euskarriaren arabera. Nolanahi ere, Turismo Zerbitzuaren oniritzia beharko da.

Iruñeko marka turistikoa eta www.pamplona.es/turismo webgunea derrigorrez sartu beharko dira jardueretarako sortutako euskarri guztietan (liburuxkak, gidak, mugikorretarako aplikazioak, webguneak, standak, kartelak, telebistako iragarkiak, bideoak, etab.).

Gainera, ahal den guztietan, laguntza-deialdi hau argitaratu ondoren egindako jardueretan Pamplona Iruña Card txartela berariazko aipatu beharko da, baita Iruñeko app turistikoa ere, irudi, QR eta abarren bitartez.

- Elementu horiek txertatzeak ez dakar berekin Iruña helmuga turistiko gisa sustatzea; beraz, komunikazio guztietan hiriaren aipamena egin beharko da, inplizituki edo esplizituki.
- Kasu guztietan, Iruñeko hiriaren sustapena hobetu eta Turismo Zerbitzuaren helburuekin lerratzeko xedez, turismo-elkarteek Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuaren aholkuak jasotzeko aukera izanen dute, eta horrek erabilitako euskarrietarako egokitutako hainbat aukera eskainiko dizkie.
- Kasu guztietan, hiriko turistek edo bisitariak izan beharko dute euskarriaren jomuga nagusi, baita, aukeran, tokiko biztanleria ere. Euskarriek kontuan hartu beharko dute xede duten publikoaren jatorria. Kanpainaren hizkuntza merkatu horri egokitu beharko zaio.
- Diruz lagunduko da jardunaldietan, lehiaketetan, famtrip-etan, bilera profesionaletan, blogarien, influencerren eta antzekoen ekitaldietan hainbat formatutako komunikazio-ekintzak egitea, baldin eta jardura horien helburuetako bat Iruña helmuga turistiko gisa sustatzea bada. Ekintzaren helmuga turistiko bakarra Iruña ez den kasuetan, dirulaguntzaren xede izaten ahalko dira bakarrik hirian egindako eta gauzatutako gastuak.

- a) Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea:

Laguntza-eskaeraren justifikazio izanen dira azoka batean stand bat paratzea, kontaktuen agenda batez arduratzea edo produktu edo ekintza espezifiko bat aurkeztea, baldin eta parte-hartzeak Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuaren oniritzia badu, edo, gutxienez, Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuak onetsitako azoka-planaren barruan badago.

- b) Argitalpenak, liburuxkak eta turismo-gidak, hala euskarri fisikoan nola birtualean:

Diruz lagunduko dira Iruña helmuga turistiko gisa sustatzea helburu duten liburuxka turistiko berriak edo eguneraketak, edo bestelako sustapen-euskarri iraunkorrak sortzea, hala euskarri fisikoetan nola digitaletan. Apartatu honetan ez dira finantzatu 3.1 apartatuan jada finantzatutako ekitaldiekin lotutako argitalpenak. DINAMIZAZIO-EKINTZAK.

- c) Publizitate kanpainak, hala konbentzionalak nola ez-konbentzionalak:

Dirulaguntza honen testuinguruan, diruz laguntzeko modukoak joko dira prentsa, irratia nahiz telebista edozein formatutan (ohikoa zein online) erabiltzen duten publizitate-kanpainak, bai eta egunkari zein irratietan egindako iragarkiak eta online marketin-jarduketak, liburuxkak, kartelak, roll-upak eta hedapenerako beste edozein material mota, Iruña Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo sustatzea xede dutenak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Zehazki, honako betekizun hauek betetzen dituzten komunikazio-kanpaina orokorrak finantzatzeko dira:

- Elkarteen eta hiriaren publizitate generikoa egiten duten komunikazio-kanpainak, 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoko 5. Programan (Produktuak) sartutako produktuak sustatzen dituztenak, edo Iruña helmuga turistiko gisa nabarmentzen dutenak hiriaren kontakizun turistikoaren arabera.
- Ez dira diruz lagunduko Udalak eta elkarte eskatzaileek elkarlanean antolaturiko kanpainak.
- Iruñeko geografia-esparrua gainditzen duten elkarteek egindako kanpainak, baldin eta horiek oinarritzen badira elkarteko kide diren enpresen aurkezpenean, deialdi honetara aurkeztzen ahalko dituzte publizitate-gastuak, baldin eta deialdi honen betekizunak betetzen badituzte, hau da, Iruña helmuga turistiko gisa goraipatzen bada eta publizitateak Iruñeari buruzko turismo-informazioa badu.
- Online marketin-kanpainetan Iruñeko Udalaren sare sozialak aipatu beharko dira, sare sozial bakoitzaren izaera aintzat hartuta komeni den moduan, esaterako, honako hauek erabilia: @visitpamplona, @visit_pamplona, #pamplonaesmuchomas, eta abar. Horretarako, Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuaren aholkularitza izaten ahalko dute.
- Diruz lagundu ahalko dira unean uneko sustapen generikoko kanpainak, baldin eta Iruñeari modu argian erreferentzia egiten dioten helmugen arteko sinergiak sustatzen badituzte eta honako gai hauetakoren batekin lotura badute: Donejakue bidea, gastronomia, bide berdeak eta harresiak.

d) Webguneak:

Dirulaguntzaren xede izanen dira honako jarduera hauek:

- Webgune berriak, egun dagoen webgune bat egokitzea hiriaren kontakizun eta produktuetara, eduki berrien eguneraketa COVID-19ak eragindako egoera berrira egokitzeko eta Iruñeko helmugako turismo jasangarriko plana garatzea.
- Horretarako, webguneek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:
- Ahaleginak eginen dira webguneak lau hizkuntzatan egon daitezen: gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez; zenbat eta hizkuntza gehiagotan itzulita egon, orduan eta puntu gehiago lortuko dira.
- Hainbat gailutan (responsive) erabiltzeko egokituta egonen dira.
- Iruñeko geografia-esparrua gainditzen duten elkarteek sustatutako webguneak diruz laguntzen ahalko dira, betiere Iruña helmuga turistiko gisa goraipatzen badute orri nagusian.

EZ DIRA DIRULAGUNTZAREN XEDE IZANEN EDOZEIN KOMUNIKAZIO-EUSKARRITAKO GASTUAK, BALDIN ETA EZ BADIOTE PUBLIZITATERIK EMATEN JARDUKETA HORIETARAKO IRUÑEKO UDALAK EMANDAKO DIRULAGUNTZARI, publizitateari buruzko E apartatuan jasotakoarekin bat.

Oro har, ez dira diruz lagunduko bileretako turismoaren (MICE) mahaian eta osasunekoan parte hartzen duten elkarteek egindako jarduerak, baldin eta Iruñeko Udalak edo Nafarroako Gobernuak esparru horretan adostu eta diruz lagundu baditu osorik edo neurri batean.

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jasotzen ahalko du aurretik aipatutako edozein jarduketa-ildori (3.1 eta 3.2) lotutako ekintza bat edo gehiago egiteko. Ekintzetako bakoitza banaka baloratuko da, koadro honetako H) apartatuan ezarritako irizpideekin bat.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 50.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/43200/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: 1. Jarduera bakoitzaren puntuazioa (Pi) kalkulatzeko da H apartatuan ezarritako irizpideekin bat.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

2. Jarduera bakoitzaren puntuazio haztatua (PHi) kalkulatzeko "i" jardueraren aurrekontu onartua (AOi) jarduera horren puntuazioarekin (Pi) biderkatu beharko da.

$$PHi = Pi \times AOi$$

3. Puntu haztatuaren balioa (PB) kalkulatzeko, puntu bakoitzaren aurrekontu-kontsignazioa zatitu beharko da apartatu bakoitzeko puntu haztatu guztien baturarekin (PHi).

DINAMIZAZIO-EKINTZAK ETA SUSTAPEN ARLOKO JARDUKETAK: $PB = 50.000\text{€} / PHi$ guztien batura

4. Jarduera bakoitzerako (betiere eskatutako gutxieneko puntuazioa erdietsi dutenetan) dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, jarduera bakoitzeko guztizko puntuazio haztatua (PHi) biderkatu beharko da puntu haztatu bakoitzari emandako balioaz (PB). Dirulaguntzaren zenbatekoa = $PHi \times PB$

5. Lortutako dirulaguntzak jardueraren aurrekontu-defizita gainditzen badu, defizitaren zenbatekoa emanen da.

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa banatu ondoren ez bada horretarako gaitutako aurrekontu guztia esleitu, beste banaketa bat eginen da sistema bera aplikatuz soberako zenbatekoari, aurrekontu-partidaren % 100 banatu arte edo diruz laguntzen ahal den ehunekoaren gehieneko laguntza eskuratu arte.

Onuradun bakoitzari jarduera bakoitzeko emanen zaion gehieneko zenbatekoak ezin izanen du gainditu onartutako aurrekontuaren % 50. Jarduera bakoitzerako emandako dirulaguntzaren eta jarduera bakoitzari zuzenean egotzen ahal zaizkion diru-sarreraren arteko batuketa ezinen da izan diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa baino handiagoa. Beraz, jarduerak banaka aztertuko dira bakoitzari dagokion dirulaguntza emateko.

Onartutako aurrekontutzat jotzen da deialdi honen L apartatuan jasotakoarekin bat diruz laguntzen ahal diren irizpideak betetzen dituen jarduerari dagozkion gastuen zenbatekoa, zeina dirulaguntza emateko fasean zehaztuko baita; eta defizitzat, berriz, onartutako aurrekontuari lortutako diru-sarrera guztien batura kenduta lortzen den zenbatekoa.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren mende egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	50.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren ezartzen diren inguruabarretan badaude, eta baldin eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko baldintzak: ☒ BAI ☐ EZ

- Legearekin bat eraturik egotea eskaera aurkezten duten datan.
- Helbide soziala edo egoitza Iruñean edukitzea.
- Eguneratuak izatea zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.
- Nafarroako Turismo Erregistroan behar bezala izena emanda egotea 2024ko urriaren 1etik.
- Iruñeko udal-mugartean turismo arloko elkartekideak edukitzea, eta horiek izatea diruz lagundutako jardueren onuradunak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko baldintzak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko marka turistikoa eta www.visitpamplonairuñia.com turismo webgunea derrigorrez sartu beharko dira jardueretarako sortutako euskarri guztietan (liburuxkak, gidak, mugikorretarako aplikazioak, webguneak, standak, kartelak, telebistako iragarkiak, bideoak, etab.). Halaber, derrigorrezkoa izanen da euskarri guztietan "Laguntzailea: Iruñeko Udala" testua sartzea.

Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, onuradunek Iruñeko Udalari eman beharko diote, honek aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan adierazitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

Halaber, urtebeteko epean 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek, edo jasotako laguntzek edo dirulaguntzek entitatearen urteko diru-sarrera guztien % 20 egiten badute gutxienez, 5.000 eurora iristen badira, nahitaez eman beharko dute honako informazio hau: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; entitateak kargu bakoitzeko eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik (VII. eranskina), eta urteko kontuak.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezala jakinarazi eta zabaldu beharko dute diru-laguntzaren xede diren jardueren edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoa. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafiko batzuetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

da".

- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez baldin bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarren bat gertatuz gero, eta salbuespenez, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira aldaketa-eskaera bat aurkeztuta; bertan aldaketez gain, horiek eragindako inguruabarren justifikazioa jaso beharko da, eta edozein kasutan, beharrezkoak izanen dira honako hauek:

-Alor kudeatzailearen aurretiko baimena izatea

-Aldaketa eragin duten egintzen berri izan eta hurrengo 10 egun balioduneko epean jakinaraztea

-Funtsezko aldaketak ez izatea.

Honako hauek hartuko dira funtsezko aldaketatzat:

-helburuei, espero diren emaitzei, xede-taldeari, datei eta edukiari buruzkoak.

- Aurkeztutako aurrekontuaren partidak aldatzea dakarten aldaketak, baldin eta horien batura, guztira, emandako dirulaguntzaren % 20tik gorakoa bada.

Aldaketak balorazio-irizpideei eraginez gero, P letrako justifikazio-fasean aipatutakoaren arabera doituko da.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematika bidez aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.pamplona.es/eu>) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez.

Deialdi honetan ez dira onartuko telematika bidez aurkezten ez diren eskaerak, izan ere, eskatzaile guztiak Administrazio Publikoekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik daude.

2. Eskaerak aurkezteko epea: eskaerak eta eskatutako agiriak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita, ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako xedatutako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuak aipatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat,



jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen agiriok zer administraziok egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Aurrekoan xedatutakoa gorabehera, Udalak edo haren mendeko erakunde autonomoek ezin badute agiriren bat eskuratu, eskatzaileari eskatzen ahalko diete hura aurkezteko, edo, bestela, agiria zein betekizuni dagokien eta horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatze, betiere ebazpen-proposamena egin baino lehen.

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jasotzen ahalko du aurretik aipatutako edozein jarduketa-ildori (3.1 eta 3.2) lotutako ekintza bat edo gehiago egiteko. Ekintzetako bakoitza banaka baloratuko da, koadro honetako H) apartatuan ezarritako irizpideekin bat.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, baldin eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Kasu horretan, X. ERANSKINA aurkeztu beharko da.

Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onesten duen 203/2021 Errege Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, ordezkariak egiaztatzen ahalko da Zuzenbidean baliozkoa izan eta egiaztagarri zehatza den edozein bitarteko erabiliz, besteak beste, honako hauek:

- "Apud acta" ahalordetzea, norbera aurrez aurre agertuta erregistro-bulegoetan, edo elektronikoki agertuta dagokion egoitza elektronikoa edo elkartutako egoitza elektronikoa.
- Egiaztaturik izatea Administrazio Publiko eskudunaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa edo erregistro elektronikoa partikularretan izena eman izana.
- Ordezkaritza ziurtagiri kualifikatua.
- Matritzea notario-artxibo batean duen dokumentu publikoa, edo merkataritza-erregistro batean egindako izen-ematea
- .

b) Erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinarekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek onuradun izateko eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarrearen ordezkari edo ahalguztari bakarrik izendatu beharko da, eta ahalorde asketsia eman behar zaio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emateko izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. III. ERANSKINA ☒ BAI
☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

IV. ERANSKINA.

g) Erantzukizunpeko adierapena, BEZaren gainean, V. ERANSKINAREKIN bat.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, non jasoko baitira, eskabidea aurkezteko datan, honako alderdi hauek: bazkide kopurua guztira, eta Iruñean kokatutako bazkide kopurua, VI. ERANSKINAREKIN bat.

i) Nafarroako Turismo Erregistroan izena emana duela egiaztatzeko agiria.

Deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere. II. ERANSKINA

.

Telematika bidez egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutakoak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kaitatuak diren kopiak.

Telematika bidez egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:



1. Jarduera bat diruz lagundu ahal izateko, Iruñean kokatutako gutxieneko bazkide kopurua eta turismo arloko enpresen parte-hartzea izan beharko du, Nafarroako Turismoari buruzko 7/2003 Foru Legearekin bat zehaztuak eta jarraian ezartzen den bezala:

- Sustapen- eta publizitate-jardueretarako: Iruñeko udal-mugartean ezarritako turismo arloko enpresen bazkide kopurua, gutxienez, proposatutako ekintzetan parte hartu eta zuzenean horien onura ateratzen duten elkarteko bazkide guztien % 20 izanen da, edo bestela, Iruñeko udalerrian kokatuta dauden eta sustapen-ekintzan parte hartu eta horren onura ateratzen duten turismo arloko enpresak 15 izanen dira gutxienez.

- Dinamizazio-jardueretarako: Iruñeko udalerrian kokatuta dauden eta ekintzan parte hartu eta zuzenean haren onura hartzen duten enpresak 15 izanen dira gutxienez ere.

Ez dira baloratuko aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten jarduerak.

Aurkezten diren jarduerak baloratzeko eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, Balorzio Batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan, eta horiei, 100 punturen gainean, ondoren azaltzen diren puntuak emanen zaizkie, honela banatuta:

Azpiatal guztietan, puntuazioa honela banatuko da: puntu guztiak banatuko dira betetako azpiatal bakoitzeko, eta, bestela, 0 puntu emanen dira.

2. AURREIKUSITAKO JARDUKETEN EDUKIA, KALITATEA ETA INTERES TURISTIKOA (100 puntu, gehienez).

2.1 - DINAMIZAZIO-EKINTZAK

Honako ekintza hauek puntuak ematen ahalko zaizkie (gehieneko puntuazioa zehazten da):

2.1.1.- Dinamizazio-ekintzak edo ekitaldiak gauzatzeko eta garatzeko eremua (5 puntu)

- Ekintzak eremu irekietan: 5 puntu
- Ekintzak eremu itxietan: 3 puntu

2.1.2.- Ekintzaren gai (10 puntu)

a.- Gastronomia: Nafarroako produktu baten edo batzuen eta horien ekoizleen edo ostalaritzako profesionalen gastronomia-sustapenarekin loturiko ekitaldiak:

- Ekitaldiak produktua ezagutzeko jarduerak egitea (lantegiak, dastatzeak, jendaurreko aurkezpenak, etab.) sustatzen badu: 5 puntu.

- Nafarroako jatorria duten produktu gastronomikoen berariazko sustapena badago edo tokiko ekoizleek parte hartzen badute: 5 puntu.

b.- Kirola: hasiera, amaiera edo ibilbide osoa Iruñean duten ekitaldiak.

- Iruñeko parke edo gune turistiko enblematikoak agertoki nagusitzat dituzten kirol ekitaldiak: 10 puntu

- Agertoki nagusitzat Iruñeko beste gune batzuk dituzten kirol ekitaldiak: 5 puntu

c.- Sanferminak eta Donejakue bidea eta beste gai batzuk jorratzen dituzten gainerako jarduerak (kontzertuak, jaialdiak, antzezlanak, dantza, aisia-jarduerak, ezagupenekoak edo interpretaziokoak...), baldin eta izaera turistiko nabarmena badute:

- Egun bat edo gutxiago irauten duten jarduerak: 3 puntu

- Bi egun edo gehiago irauten duten jarduerak: 7 puntu

- Jarduerak, gainera, plan estrategikoko beste produktu turistiko batzuk (esate baterako, tokiko gastronomia) sustatzen baditu: 3 puntu



d.- Biltzarrak:

- Egun erdiko jarduerak: 3 puntu
- Egun erdi bat baino gehiago eta egun oso bat edo gehiago irauten duten: 6 puntu
- Egun bat baino gehiago irauten duten jarduerak: 10 puntu

2.1.3.- Komunikazioa: banaketa eta ale kopurua edo lortutako inpaktua: liburuxkak, irratia, webguneak zein sare sozialak (50 puntu)

a.- Irratia: gutxienez 20 iragarki ematea irratan (15 puntu):

Baldin publizitatea Nafarroan igortzen duten irrati-kateetan txertatzen bada: puntu bat emanen da erabilitako irrati-kate bakoitzeko, gehienez ere 5 puntura bitarte.

Baldin publizitatea hurbileko merkatuetan igortzen duten irrati-kateetan txertatzen bada (Euskadi, Errioxa, Aragoi eta Akitania): puntu bat emanen da erabilitako irrati-kate bakoitzeko, gehienez ere 5 puntura bitarte.

Baldin publizitatea hurbileko merkatutzat adierazitakoez bestelako autonomia-erkidegoetan igortzen duten irrati-kateetan txertatzen bada: puntu bat erabilitako irrati-kate bakoitzeko, gehienez ere 5 puntura bitarte.

b. - Sare sozialak: Online marketin-ekintzak egiten dituzten sare sozial edo plataforma ezberdinen kopurua (15 puntu)

Publizitatea ordainpekoa bada, puntu bat erabilitako sare sozial/plataforma bakoitzeko, gehienez ere 5 puntura bitarte.

2 puntu emanen dira erabilitako sare sozial bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura bitarte.

c. - Blogariak: baldin blogari profesional batek dinamizatzen badu jarduera (10 puntu).

Baldin Blogari edo influencerak batez ere Nafarroan lan egiten badu: 8 puntu.

Blogariak edo influencerak Nafarroaz bestelako eskualdeak baldin baditu lan-esparrutzat: 2 puntu.

d. - Kartelak: jardueraren kartelak jarriko badira autobusetan, informaziorako hiri-altzarietan, tenpleteetan, markesinetan eta abarretan, jarduera hala on-line nola fisikoki hedatzeko (10 puntu)

Kartelak Nafarroako eremuan banatu badira: 2 puntu erabilitako espazio bakoitzeko, gehienez ere 8 puntura bitarte.

Kartelak Nafarroaz bestelako eskualdeetan banatzen badira: 1 puntu publizitatea egiten den espazio eta eskualde bakoitzeko, 2 puntura bitarte.

2.1.4- Koordinazioa-komunikazioa Turismo zerbitzuarekin (10 puntu)

Baldin jarduera hedatzen bada eta Udalaren turismo-sareak etiketatzen bada: 10 puntu

2.1.5.- Urtarokotasuna haustea (10 puntu):

Ekintza ekainean egiten bada, edo irailean edo urrian: 5 puntu

Ekintza zubietan egiten bada (abuztuaren 15eko zubian izan ezik), edo Aste Santuan eta Gabonetan, edo uztailako bigarren hamabostaldian, edo azarotik martxora: 10 puntu

2.1.6.- Ekitaldia finkatzea (5 puntu)

- Ekitaldi berria: 5 puntu
- Ekitaldiak 2 urte daramatza gauzatzen: 4 puntu
- Ekitaldiak 3 urte daramatza gauzatzen: 3 puntu
- Ekitaldiak 4 urte daramatza gauzatzen: 2 puntu
- Ekitaldiak 5 urte daramatza gauzatzen: 1 puntu

2.1.7 Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko



azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legean galdutako irisgarritasun-estandarrak betetzea; edo jardunbide jasagarriak sustatzea (10 puntu)

Ekitaldiak irisgarritasun-estandarrak betetzera zuzendutako 4 neurri (arrapalak, irakurketa erraza, begizta magnetikoak, etab.) baditu gutxienez: 5 puntu

Ekitaldiak herritarrei oro har zuzendutako komunikazio-kanalak baditu, jardunbide jasagarriak dituztenak: 5 puntu.

2.2. SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUERAK, IRUÑA HELMUGA TURISTIKO GISA NABARMENTZEN DUTENAK.

Jarduketak atal hauen barnean sartuko dira, xehetasun hauekin bat:

2.2.1.- Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea:

a.- Azoka, workshop, aurkezpen eta abarren gaia (15 puntu)

- Turismo kulturala, bileretako turismoa (MICE), osasuneko, gastronomikoa, hezkuntzakoa: 15 puntu

- Gai orokorrak: 5 puntu

- 2024-2029ko aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoan sartutako bestelako gaiak: 10 puntu

b. - Merkatu potentzialak 3.4 apartatuaren arabera: 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoko JOMUGA-MERKATUAK 3.4 apartatuaren arabera (15 puntu):

- Nazioartekoa (Europa): 15 puntu

- Nazionala: 10 puntu

- Hurbileko merkatua: 5 puntu

c.- Tokia (20 puntu): 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoko JOMUGA-MERKATUAK 3.4 apartatuaren arabera:

- Distantzia luzeko merkatua: 20 puntu

- Distantzia ertaineko merkatua: 10 puntu

- Hurbileko merkatuak: 5 puntu

d. - Ekintza egiteko behar diren guneen kudeaketaren eta gastuen arabera (20 puntu)

- Zorua, guneak, lekuak, erakusmahaiak, etab. banaka alokatzea: 20 puntu

- Standa, erakusmahai, mahaia eta abar partekatuta: 10 puntu

- Bertaratzea bakarrik: 5 puntu

e. - Ekintzan erabilitako materialak (20 puntu):

- Material propioa egitea, azoketan salmenta-ekintzak egiteko soilik: 5 puntu.

- Udaleko Turismo Zerbitzuak argitaratutako materiala (planoa, liburuxka, bideoa eta aurkezpenak): 5 puntu.

Elkartearen materiala: 5 puntu

- Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuaren materiala: 5 puntu

f.- Memoria bat aurkezteko konpromisoa, zeinak izanen baititu bilera-programa eta jardueraren balorazioa (10 puntu):

- Aurkezteko konpromisoa: 10 puntu

2.2.2.- Argitalpenak eta turismo-gida fisiko edo digitalak:

a.- Iruñeko produktu turistikoaren sustapenari eta publizitateari laguntzea (25 puntu).

- Hiriren turismo-informazio orokorra sartzea, hiriko turismoari buruzko berriazko publizitate-atalean agertzen denaz bestelakoa: 15 puntu.

- 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoan sartutako edozein produktu turistiko sustatzea xede duen informazioa sartzea: puntu bat, jasotako produktu turistikoetako bakoitzeko, 10



puntura bitarte.

b.- Hiriko turismoari buruzko berariazko publizitate-atal bat sartzea (10 puntu):

- Gidaren edo argitalpenaren orrialde erdia: 5 puntu
- Orrialde bat: 10 puntu.

c.- 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismo Plan Estrategikoan jasotako Iruñeko Udalaren zeharkako estrategien hedapena (10 puntu).

- Tokiko enpresen gida bat bada, turistei zuzendua, baldin eta Biosphere ziurtagiria duten edo Navarra Zirkular ekimenean sartuta dauden enpresei buruzko berariazko informazioa ematen bada: 5 puntu.

- Tokiko enpresen gida bat bada, turistei zuzendua, baldin eta jasangarritasunaren arloko jardunbide egokiei buruzko informazioa ematen bada: 5 puntu

d.- Turismoa hedatzeko materialaren iraupena (10 puntu)

- Urte bateko edo gehiagoko iraupena duten liburuxkak edo gidak: 10 puntu
- Urte bateko edo gehiagoko iraupena duten liburuxken edo giden eguneratze-lanak: 5 puntu
- Unean uneko jardueren liburuxkak, agendak edo aldi baterako eskaintzak: 5 puntu
- Beste material batzuk, beste iraupen batzuekin: 2 puntu

e.- Argitaratutako materialetko hizkuntzak (20 puntu), baldin bat baldin badatoz 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismo Plan Estrategikoan xede-taldeei eta identifikatutako hizkuntzei buruz ezarritakoa.

- Gaztelania: 5 puntu
- Euskara: 5 puntu
- Ingelesa: 5 puntu
- Frantsesa: 5 puntu

f. - Publizitaterako materiala banatzeko merkatua, 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismo Plan Estrategikoaren JOMUGA-MERKATUAK 3.4 apartatuan adierazitako jomuga-merkatuen arabera (25 puntu)

- Distantzia luzeko merkatua: 10 puntu
- Distantzia ertaineko merkatua: 10 puntu
- Hurbileko merkatuak: 5 puntu

2.2.3.- Komunikazio-kanpainak:

a.- Laguntzen du 2024-2029 aldirako Turismo Plan Estrategikoko produktu turistikoak sustatzen eta publizitatea egiten (20 puntu)

- Mezu nagusiak bultzatu egiten du bidaia egitera eta Iruña bisitatzera: 10 puntu
- Mezu nagusiak bultzatu egiten du Iruñetik Nafarroa bisitatzera: 10 puntu

b.- Publizitate-kanpainak egitea 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismo Plan Estrategikoaren 3.4 apartatuan adierazitako JOMUGA-MERKATUEN arabera (15 puntu):

- Distantzia luzeko merkatua: 5 puntu
- Distantzia ertaineko merkatua: 10 puntu
- Hurbileko merkatuak: 10 puntu

c.- Komunikazio-kanpaina, materialak banatzea eta lortutako inaktuak. Irratiak: gutxienez 20 iragarki ematea irratan (15 puntu):

Publizitatea Nafarroan igortzen duten irrati-kateetan txertatzen bada: 3 puntu erabilitako irrati-kate bakoitzeko, gehienez ere 9 puntura bitarte.

Publizitatea hurbileko merkatuetan igortzen duten irrati-kateetan txertatzen bada (Euskadi, Errioxa, Aragoi eta Akitania): 1 puntu erabilitako irrati-kate bakoitzeko, gehienez ere 3 puntura bitarte.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Publizitatea hurbileko merkatutzat adierazitakoez bestelako autonomia-erkidegoetan igortzen duten irrati-kateetan txertatzen bada: 1 puntu erabilitako irrati-kate bakoitzeko, gehienez ere 3 puntura bitarte.

d.- Komunikazio-kanpaina, materialen banaketa eta lortutako inpaktuak. Online marketin-ekintzak egiten dituzten sare sozial edo plataforma ezberdinen kopurua (15 puntu)

Publizitatea ordainpekoa bada, 3 puntu erabilitako sare sozial/plataforma bakoitzeko, gehienez ere 6 puntura bitarte.

3 puntu erabilitako sare sozial bakoitzeko, gehienez ere 9 puntura bitarte.

e.- Komunikazio-kanpaina egitea blogariek, fam trip-etan, bilera profesionalean, influenceren eta antzekoen ekitaldietan. (15 puntu)

Profesional horiek batez ere Nafarroa badute jomuga-merkatu: 2 puntu profesional edo iragarritako jardura bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura bitarte.

Profesional horiek Nafarroaz bestelako eskualdeak badituzte jomuga-merkatu: 1 puntu profesional edo iragarritako jardura bakoitzeko, gehienez ere 5 puntura bitarte.

f. - 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoan jasotako Iruñeko Udalaren zeharkako estrategien hedapena (5 puntu).

- Kanpainak jasotzen badu jasagarritasunaren arloko jardunbide egokiei buruzko informazioa, bisitariei zuzendua: 5 puntu.

g. Komunikazio-kanpainaren hizkuntzak, eta argitaratutako materialetako hizkuntzak, xede-talde gisa ezarritakoetara doitu eta 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoan identifikatutako hizkuntzetan egin badira (10 puntu).

- Euskara: 3 puntu
- Ingelesa: 1 puntu
- Frantsesa: 1 puntu
- Gaztelania: 5 puntu.

h. Kanpainaren inpaktua aztertzea (5 puntu)

- Kanpainaren inpaktuaren ikerlana egiteko konpromisoa: 5 puntu

2.2.4. Webguneak

a.- Laguntzea 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoko produktu turistikoak sustatzen eta publizitatea egiten (45 puntu):

- Hiriaren turismo-informazio berria sartzeara: 5 puntu.
- Iruñetik Nafarroako beste toki batzuetara egingen diren bisiten turismo-informazioa sartzeara: 10 puntu.
- Eskaintza sartzeara, 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoaren 3.3 apartatuan jasotako produktu turistiko eta estrategien arabera segmentatuta: 10 puntu.
- Jasagarritasunaren arloko jardunbide egokiei buruz kontzientziatzeko berariazko apartatu bat sartzeara, bisitariei zuzendua: 10 puntu.
- Hiriko turismo irisgarria sustatzea eta hedatzea: 10 puntu

b.- Hiriko turismoari edo Pamplona Iruña Card programari buruzko berariazko publizitate-atal bat edo banner bat sartzeara (5 puntu)

- PICEan berariazko publizitate-atal bat edo banner bat sartzen bada: 5 puntu.

c.- Webgunea sortzea (10 puntu):

- Webgunea berria bada: 10 puntu.
- Edukiak nabarmen eguneratu badira: 5 puntu.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

d.- Turismo-webgune mota (10 puntu)

- Webgune denborazkanpkoa: 10 puntu.
- Elkartearen jarduera-egutegiko unean uneko ekitaldi bati lotutako webgunea: 5 puntu.

e.- Argitaratutako materialetako hizkuntzak (20 puntu), xede-talde gisa ezarritakoetara doitu eta 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismo Plan Estrategikoan identifikatutako hizkuntzetan egin badira.

- Euskara: 5 puntu
- Ingelesa: 5 puntu
- Frantsesa: 5 puntu
- Gaztelania: 5 puntu.

f. - Webguneak web-irisgarritasunerako nazioarteko estandarretako bat betetzea; esaterako, WCAG 2.0, ISO: ISO/IEC 40500 edo baliokideren bat (10 puntu, gehienez).

- Betetzen badu: 10 puntu.
- Ez badu betetzen: 0 puntu.

Azpiatalen baturak gehieneko puntuazioa gainditu balezake ere, jarduketa edo jarduera bakoitzak atal bakoitzeko gehieneko puntuazioa baino ezin izanen du lortu, baloratzeko irizpide objektiboetan zehazten den bezala.

2. apartatuan, AURREIKUSITAKO JARDUKETEN EDUKIA, KALITATEA ETA INTERES TURISTIKOARI buruzkoan, 50 puntu ez lortzeak ekintza horretarako eskatutako dirulaguntza ezestea ekarriko du.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Batzordeburua:	Mikel Armendáriz Barnechea, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: beste zinegotzi ordezkari bat.
Kideak:	
1.	Carlos Andrés Uranga, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria / Ordezkoa: Beni Soteras Ramírez, alor bereko idazkari teknikaria.
2.	María Bezunartea Barasoain, Turismo burua / Ordezkoa: Ana Gonzalez Cortea, turismo teknikaria.
3.	Alberto Tomás Royo, Turismo teknikaria / Ordezkoa: Juanjo Urdaniz Villanueva, alor bereko teknikaria.
Idazkaria:	Ángela Sanz Rives, Iruñeko Udaleko Zuzenbidean lizentziaduna / Ordezkoa: zuzenbidean lizentzia duen beste bat, udalekoa.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENA JAKINARAZTEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat ere bai, eta hor egiaztatuko du eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela dirulaguntza jasotzen duten pertsonen eta entitateen betetzen dituztela dirulaguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak. Espedientea balioespen-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan xedatu diren balioespen-irizpide objektiboen arabera.

Balioespen-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.



2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epeak ezin du izan sei hilabete baino gehiagokoa.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, bat etorrita urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ARGITARATZEA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahaliko dira:

1.1.- ENTITATEAREN ZEHARKAKO GASTUAK, ADMINISTRAZIOKOAK ETA FUNTZIONAMENDUKOAK

Jarduera edo proiektu bakoitzeko, emandako dirulaguntzaren edo guztira justifikatutako gastuaren (gastuak dirulaguntza baino gutxiago izanez gero) % 15 egozten ahaliko da, gehienez ere, diruz lagundutako jarduera egiten den aldiari dagozkion zeharkako gastuetarako. Gastu horiek honako hauei buruzkoak izaten ahaliko dira:

- a) Entitatearen egoitzaren alokairu-gastuak.
- b) Argi-, ur- eta telefono- zein Internet-gastuak.

1.2.- JARDUEREN PROGRAMARI ZUZENEAN LOTUTAKO GASTUAK

- B.3.1. epigrafean jasotako DINAMIZAZIO EKINTZAK ETA EKITALDI .



Apartatu honen barnean sartzen ahalko dira jarraian zehazten diren gastuak, baldin eta horiek ez badiete zuzeneko eta berehalako onura ekartzen elkarteko kideei, elkartearen berezko jardunaren parte izateagatik, jarduera egiteko beharrezkoak badira, eta Iruñeko udalerrian eginez gero.

Honako gastu hauek dira dirulaguntzen xede:

- Ekitaldi edo proposamenaren antolaketarekin zuzenean loturiko ezinbesteko gastuak. Adibidez: kale-giroetzea, jantziak alokatzea, apaintzeko materialak, osasun-materialak, aseguruak, sustapen-produktu eta -materialak garraiatzea, muntaketa-gastuak, anbulantziak, altzariak edo megafonia-zerbitzuak kontratatzea, musika-taldeak kontratatzea, eta abar. Ekintza guztiek harreman zuzena izan beharko dute elkarte sustatzailearekin, eta bazkide guztiak inplikatu edo zuzenean eragin beharko dute haiengan.

- Kanpoko laguntza, antolaketa eta koordinazioa egiteko, edo kanpoko laguntza espezializatua proposamen inklusiboak edota ingurumenari dagokionez jasangarriak egiteko.

- Proposamena dinamizatzeko gastuen apartatu honetan sartzen ahalko dira honako ikuskizun eta animazio aktibo hauek: musika, antzerkia eta parekideak, baldin eta ekitaldiaren gai nagusiari balio espezifiko ematen badiote eta berariaz baztertuta ez badaude.

- Proposamena antolatzeko eta koordinatzeko kanpoko laguntzari dagozkion gastuak, prentsaurrekoak edo hedabideendako aurkezpenak egitea barne.

- Kanpoko laguntza espezializatua emateko aholkularitza-gastuak proposamen inklusiboak edota ingurumenari dagokionez jasangarriak egiteko.

- Ekitaldi edo proposamenaren komunikazio- eta publizitate-gastuak.

- Ekitaldi beragatik ezin izanen zaie dirulaguntza bi entitate ezberdini eman.

- Taldearen ostatu, garraio, ostalaritza eta lagun egite gastuak jardunaldiak, lehiaketak, famtrip-ak, bilera profesionalak eta antzeko ekitaldiak egitean.

Modalitate honetan EZ da inolaz ere dirulaguntzarik emanen honako gastu mota hauetarako:

- Ekitaldia egin ondoren ingurua edo instalazioak garbitzeko.

- Domeinua, Hostinga berritzea edo haren urteko kuota eta webgune, sare sozial edo antzekoen mantentze-lanetarako gastuak.

- Bazkari herrikoi eta instituzionalen gastuak.

- Ekitaldi instituzionalekin lotutako gastuak.

- Kontzertuak edo gaueko dantzaldiak. Horien parekotzat joko dira diruz laguntzen den ekitaldi edo proposamena justifikatzen duen elementu nagusiari berez lotutakoak jotzen ez diren gaueko ikuskizunak.

- Hitzaldiak eta erakusketak, dinamizazio-ekintzaren parte ez diren kasuetan.

- Bisitarien edo turisten garraio-gastuak, salbu eta dinamizazio-ekitaldiaren parte badira.

- Ekitaldian omendutako edo gonbidatutako pertsonen gastuak, salbu eta hori jarduera, lantegi edo ekitaldiaren erakustaldiaren testuinguruan egiten bada.



- Opariak, merchandising-erregaluak eta –objektuak, sariak dirutan, eta sari nahiz lehiaketetako gastuak.
- Ekitaldia egin aurreko eta ondorengo 15 egunetik gorako estaldura-epea duten aseguruak.

Proiektu edo jarduera bakoitzeko diruz laguntzen ahal den gehieneko zenbatekoa 15.000 euro da.

SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUKETAK, IRUÑA HELMUGA TURISTIKO GISA NABARMENTZEN DUTENAK, B.3.2. epigrafean jasoak.

- Azoka, workshop eta aurkezpenetara bertaratzea (B.3.2.a epigrafea).

* Bertaratuen garraio-, ostatu- eta mantenu-gastuak. Kasu guztietan, gastu horiek entitate eskatzaileari zuzenean loturik egon beharko dute, behar bezala justifikaturik faktura sinplifikatuen bidez edo dagozkien ordainagiriak dituzten fakturen bidez, edo horien baliokideen bidez, kontratatutako hirugarrenen fakturen kasuan. Kontzeptu horri dagozkion laguntzen zenbatekoa pertsonako, eguneko eta ekitaldi bakoitzeko emanen da; nazioko ekitaldia izanez gero, guztira 400 euroko laguntza emanen da, eta nazioartekoa bada, 800 euro.

* Instalazioak azoka edo aurkezpenetan, eta, zehazki, zorua alokatzeari, standei eta materiala garraiatzeari dagozkion gastuak. Era berean, aurkezpenak egiten badira, barne hartzen ahalko dira aretoen alokairu-gastuak, bitarteko teknikoak (megafonia, pantailak...), materialen garraioenak eta aurkezpenaren xede diren materialena.

Joan-etorria auto partikularretan eginez gero, bidesari-, aparkatze- eta kilometraje-gastuak onartuko dira. Azken horiek kalkulatzeko, aintzat hartuko da entitate eskatzailearen egoitzatik azoka egiten den tokiraino dagoen kilometro kopurua, eta kilometro bakoitzeko 0,35€ emanen dira.

- Material turistikoa, publizitate-kanpainak, konbentzionalak eta ez-konbentzionalak, web sustapena eta online marketineko jarduketak (B.3.2.b, c eta d epigrafea).

- Material turistikoa: apartatu honen baitan sartzen ahalko dira hedapen turistikorako materialak diseinatzeko eta argitaratzeko honako gastu mota hauek:

* Publizitate-kanpainen edo marketin digitaleko ekintzen bitartekoen diseinu- eta kontratazio-gastuak.

* Onlineko marketinaren eta web sustapenaren kanpainaren diseinu- eta kontratazio-gastuak.

Horrez gain, material turistikoa; gida, bideo, liburuxka edo argitalpenak Elkartea osatzen duten enpresa edo entitate guztiak jasoko ditu, eta ez da banakako separatarik onartuko.

- Publizitate-kanpainak entitate sustatzailearen jarduketei eta proposamenei buruzkoak izanen dira, kanpainaren hasiera- eta amaiera-data adieraziko da, eta aipatu beharko da zein produktu, segmentu edota merkatutara zuzentzen diren.

Halaber, barne hartzen ahalko dira elkartearen kanpaina orokorren eta unean uneko ekintzen diseinua, baldin eta izaera orokorra badute, –ez enpresa partikularretara bideratua–, sustapen-mezu bat badute edo helburutzat badute egiten duten turismo-jardueraren balioa azpimarratzea, beste entitate batzuen inolaz ere kaltetu gabe. Xede horietarako, ez da halakotzat jotzen edozein motatako publizitate-euskarritan entitatearen logoa eta izena sartze hutsa. Honako hauei lotutako gastuak apartatu honetan sartzen dira: prentsa, aldizkari espezializatuak, irratia, telebista, publizitatea argitalpenetan, publizitatea kanpoko euskarrietan, publizitatea bilatzaileetan (SEM), publizitatea sare sozialetan, marketin-ekintzak



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

eta komunikabide digitalen erosketa programatua.

- Online marketina: marketin digitaleko ekintzak egitea onartzen da, baldin eta turismo-sustapena hobetzera zuzentzen badira; honako hauek izan daitezke: webgunearen SEOa hobetzeko ekintzak, webgunearen erabiltzaile-esperientzia edo erabilgarritasuna hobetzeko ekintzak, e-mail marketina, web-analitika, interesekoa den publiko segmentatuari zuzendutako publizitate-ekintzak, eta abar.

- Webguneak. Azkenik, webguneak sortzeko gastuak onartzen dira, egungo webgunearen bilakaera nabarmena dakarten garapenei lotutakoak, edukien itzulpen-gastuak, gailu askotarako egokitzekoak eta webgune nagusi batetik eratorritako mikrositeak sortzeko gastuak.

Modalitate honetan EZ dira diruz lagungarriak izanen honako gastu hauek:

- Webgune edo sare sozialen domeinuei eta mantentze-lanei lotutako gastuak.

- Egungo webgune eta mikrositeetan egindako aldaketa ez funtsezkoak.

- Lehiaketetako edo zozketetako sariak.

Oro har, EZ DA diruz laguntzeko modukoa izanen osasun-klusterrari eta bileretako turismoaren (MICE) mahaiairi lotutako elkarteek egindako ezein jarduera, baldin eta Iruñeko Udalak esparru horretan adostu eta diruz lagundu baditu.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 euro izanen da jarduera edo proiektu bakoitzeko, gastu-kontzeptuei dagokienez zenbateko itxia ezarri den jardueretan izan-ezik.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da egiazki ordaindu denadeialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diruz lagungarriak izanen:

- Elkartearen beste funtzionamendu-gastu arruntak

- Inbertsioak

- Altzariak

- Online erreserbak egiteko zentralak edo hirugarrenen erreserba-motorrak

2. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuak egiteko epea: 2025eko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 80

Onuradunak inola ere ezin izanen du itunik egin honako hauekin, diruz lagundutako jarduerak osorik edo zati batean burutzeko:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- a) Ordenantza honetako 10. artikuluan jasotako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.
- b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.
- c) Eragiketaren kostu osoaren portzentaje bat kobratzen duten bitartekari edo aholkulariekin, non eta ordainketa hori egindako lan edo zerbitzuaren merkatuko balioa erreferentzia hartuta justifikatzen ez den.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, baldintza hauek bete ezean:
 - Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.
 - Aldez aurretik organo emailearen baimena eskuratzea.
- e) Deialdi eta programa berean dirulaguntzarik eskatu eta eskakizunak ez betetzeagatik edo behar adina puntu ez lortzeagatik dirulaguntzarik lortu ez duten pertsonak edo entitateak.

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko figura gisa.

d) letran adierazitakoaren ondorioetarako, lotutako pertsonatzat edo entitateatzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan zehaztutako pertsonak edo entitateak.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbatekoan edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: % 50

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Zehazki, Udalak diruz laguntzen dituen jarduerak Nafarroako Gobernuak ere diruz laguntzeko aukera dagoen kasuetan, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar proiektuak, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuarekin koordinatutako da zehazteko administrazio bakoitzak zer nolako tratamendua emanen dion beste administrazioak eskatu, eman edo ordaindutako dirulaguntzari, eta, edozein kasutan, berraztertutako da bi administrazioek diruz lagundutako zenbatekoak –bestelako diru-sarreraren bidez finantzatuak–, guztira, ez duela gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

Sustapen Ekonomikoko, Europar proiektuak, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorrak Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuari jakinaraziko dizkio hala deialdi honek eragindako ebazpenak nola diruz lagundutako jardueren xehetasunak, eta departamentu horri informazio berdina eskatuko dio administrazio horrek kudeatutako dirulaguntzez bezainbatean.

Administrazioak edozein bitarteko erabilita ziur jakinez gero jarduerak hura egiteari zuzenean egotzitako diru-sarrerak eduki eta entitate onuradunak ez dituela aitortzen hala egiteko betebeharra izan arren, Administrazioak jarduera horretarako laguntza ukatuko du, edo, hala badagokio, itzularazteko prozedura hasiko du, betiere kalterik egin gabe egokitzen ahal zaion zehapen-prozedura abiatzeki.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: % 100
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, aldeztu aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

- ☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira, eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren adinakoa.

Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriekin osatuko dute, eta haiekin batera aurkeztu beharko dira egiaztagiria (fakturak eta frogagiri gisa baliokide diren gainerako agiriak, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen dutenak) eta deialdi honen VIII. eranskina (TURISMOA SUSTATZEKO JARDUEREN KONTUA: JUSTIFIKAZIOA):

A) Diruz lagundutako jardueraren ebaluazio- eta justifikazio-memoria, IX. ERANSKINArekin bat (JARDUERAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA), bertan zehaztuko direlarik ekintza-motaren arabera jarraian zehazten diren honako hauek:

3.1. DINAMIZAZIO-EKITALDIAK: Benetan egindako ekintzen deskribapena, ereduaren arabera, emaitzaren balorazioa eta izan duen harrera, eta ekintza egin izanaren erakusgarri grafikoa. Memoria horren baitan jasoko dira, kirol-probetarako edo bestetarako izen-emateen kasuan, parte-hartzaileen kopurua eta horien jatorria.

3.2. SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUKETAK, IRUÑA HELMUGA TURISTIKO GISA NABARMENTZEN DUTENAK



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

a. Azoka eta aurkezpenetara joatea. Amaierako memoria, bertan adierazita zenbat lagun bertaratu diren azoka edo aurkezpena, zenbat egunez, egindako jarduera eta izandako harremanak, eta azoka edo aurkezpen horien amaierako balorazioa. Horretaz gain, erantsi beharko dira ekitaldiaren hedapen-kanpainaren kopia digitalak, publizitate-materiala, bai eta prentsa-oharren, igorritako komunikatuen, hedabideek jasotako informazioen eta txertatutako publizitatearen kopiak ere.

b. Hedapen-materiala, publizitate-kanpainak eta webguneak.

o Hedapen-materiala. Amaierako memoriak argitaratutako material-mota, banaketa edo hedapena eta egindako sustapen-ekintzak, eta ekintzaren emaitzaren balorazioa jaso beharko ditu. Zerbitzu honi editatu eta argitaratu edo inprimatu den material guztiaren kopia digitala helaraziko zaio.

o Publizitate-kanpainak. Amaierako memoriak hedabideen plana zehaztu beharko du, bertan adierazita datak, lortutako inpaktua eta ekintzaren emaitzaren balorazioa. Halaber, honako material hauek erantsi beharko dira:

- Honako hauen kopiak: prentsa-oharrak, komunikatuak, komunikabideek jasotako informazioak eta, halakorik balitz, komunikabide horietan jarritako iragarkiak.

- Diruz lagundutako kontzeptuarekin lotutako sustapen-material guztien ale bana, baldin eta argitaratu badira, edota webgune eta antzekoetan jarritako informazioa sartzeko estekak.

o Webguneak eta onlineko marketin-ekintzak. Memoriak behar beste argitu beharko ditu webgunean egindako aldaketak eta, hala badagokio, argi deskribatu egindako online marketin-ekintzak, eta horrekin batera aurreikusitako helburuen arabera balorazio bat ere aurkeztu beharko du.

Justifikazioa errazteko, kasuan kasuko fitxak bete beharko dira, fitxa bana diruz lagundutako jarduera bakoitzeko, jarduera zein ildo-motara aurkezten den (3.1. edo 3.2.) eta horren arabera.

B) Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, kontzeptua, zenbatekoa (BEZa xehaturik), jaulkitze-data eta ordainketa-data (IX. eranskinean sartua). Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo dirulaguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiriak edota kutxako tiketak. Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFK, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena. Agiriak jatorrizkoak izanen dira. Kontratutako zerbitzuen hornitzaileak emandako jatorrizko PDF artxiboak eta dagokion bankuak emandako ordainagirien PDFak, diruz lagundutako gastuak egiaztatzeko agirien kopia sinple gisa onartuko dira. Nolanahi ere, Iruñeko Udaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 11.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzaren onuradunek organo kudeatzaileak zehaztutako egiaztatze-jarduketak egin beharko dituzte, eta organo kudeatzaileak, dokumentuen originaltasunari buruzko zalantzarik izanez gero, aurrez aurreko tramitazioa eskatzen ahalko du.

Fakturak bat etorriko dira Fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onetsi zuen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuarekin, eta, edozein kasutan, dirulaguntzaren eskatzailearen izenean jaulkita egon behar dute.

Ez dira kontuan hartuko, inongo kasutan, eskudirutan ordaindutako gastuak, baldin eta horiek esku hartzen dutenetako batek enpresaburu edo profesional gisara egindako eragiketei badagozkie eta gastuak 2.500 euro edo gehiago –eta atzerriko txanponen kasuan, balio bera– jotzen badute betiere



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzeko urriaren 29ko 7/2012 Legean ezarritakoarekin bat.

Zeharkako gastuez bezainbatean, diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzari dagokion guztizko gastua justifikatu beharko da, eta zeharkako gastuen egozte-irizpideak zehaztu beharko dira diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren guztizkoari dagokionez.

C) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten egiaztagiria. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

D) Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.

E) Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasun-betebeharrari buruz, VII. ERANSKINAREKIN bat, eta, hala behar izatera, urteko kontuen kopia. Apartatu honetako e) letrako gardentasun-betebeharrei buruzko agiriak ez aurkezteak berekin ekarriko du dirulaguntza itzuli beharra.

F) Telematika bidez aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, XI. eranskinarekin bat.

Aurkeztutako agiriak ikusirik, organo kudeatzaileak, egoki irizten badio, entitate onuradunari jatorrizko agiriak aurrez aurre erakustea eskatzen ahalko du 10 eguneko epean, aurkeztutako agirien egiazkotasuna egiaztatze aldera.

Baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua.

Halaber, proiektua neurri batean ez betetzeak dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzea ekarriko du, edo, hala badagokio, kobratzeko eskubidea galtzea. Zein neurritan bete ez den zehazteko modua jarraian azaltzen dena izanen da.

Jardueraren justifikazio-agiriak jaso ondoren, egiaztatuko da jarduera aurrekontuan jasotako proiektuarekin bat egin dela, eta emakida-fasean proiektuak jasotako puntuak eta azkenik gauzatu den proiektuari dagozkionak bat datozela. Gauzatutako proiektuari dagozkion puntuak emakida-fasean emandakoak baino txikiagoak direla egiaztatzen bada, honela murriztuko da diruz lagundu beharreko zenbatekoa:

Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 1 eta 5 puntu artekoa bada, ez da ezer murriztuko, jardueran funtsezko aldaketarik ez dela egon ulertuko baita.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 6 eta 10 puntu artekoa bada, % 5 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 11 eta 15 puntu artekoa bada, % 10 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 16 eta 20 puntu artekoa bada, % 15 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 21 eta 25 puntu artekoa bada, % 20 murriztuko da emandako zenbatekoa.

* Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 26 eta 30 puntu artekoa bada, % 25 murriztuko da emandako zenbatekoa.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- * Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 31 eta 35 puntu artekoa bada, % 30 murriztuko da emandako zenbatekoa.
- * Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 36 eta 40 puntu artekoa bada, % 35 murriztuko da emandako zenbatekoa.
- * Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 41 eta 45 puntu artekoa bada, % 40 murriztuko da emandako zenbatekoa.
- * Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 46 eta 50 puntu artekoa bada, % 45 murriztuko da emandako zenbatekoa.

Edozein kasutan, justifikazioaren fasearen ondoren, jarduera egiaztatzean ikusten bada jarduerak ez duela diruz lagundua izateko gutxieneko puntuazioa lortu, hau da, ez dituela 50 puntu lortu, emandako dirulaguntza osoa kobratzeko eskubidea osorik galduko da, edo, hala badagokio, dirulaguntza osoa itzuli beharko da.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

Gastuak justifikatzeko agiririk aurkezten ez bada, aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, edo, halakorik balitz, ordaintzeke dagoen kopurua jasotzeko eskubidea galduko da, betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45.1c) artikuluekin bat.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean (IV. titulua) eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako arrazoiak gain, oinarri honetan



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

jasotakoak ere izanen dira dirulaguntzak itzularazteko eta atxikitze arrazoiak.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren IV. tituluko II. kapituluaren ezarritakoaren arabera arautuko da.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☒ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA- JARDUERAREN ARGIBIDE-MEMORIA

V. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) inguruan

VI. ERANSKINA- BAZKIDE-KOPURUARI ETA IRUÑEKO BAZKIDE-KOPURUARI BURUZKO ADIERAZPENA

VII. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ

VIII. ERANSKINA- TURISMOA SUSTATZEKO JARDUEREN JUSTIFIKAZIOA

IX. ERANSKINA- JARDUERAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

X. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GALDATUTAKO AGIRIEN GAINEAN

XI. ERANSKINA- DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*